

**SEKTORE PUBLIKOAN “MUSIKA
ANIMATZAILEA” KATEGORIAN ENPLEGUA
EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIAREN ETA
PROZESU ARRUNTAREN OINARRIAK**

40_EI_BER_MUS_ANI

AURKIBIDEA

Hitzaurrea

Sarrera orokorra

1. Prozesu guztietarako arau orokorrak

- 1.1 Ebaluazio Epaimahaia.
- 1.2 Argitaratzea: deialdiak argitaratzea, erreklamazio-prozesuari eta -prozedurari buruzko argitalpenak.
- 1.3 Izena emateko prozedura.
- 1.4 Prozesu guztietarako arau orokorrak.
- 1.5 Lanpostu finkoak esleitzeko arau komunak.
- 1.6 Desgaitasunen bat duten pertsonentzako enplegu-erreserba.
- 1.7 Hautapen-prozesuko datuak babestea eta kudeatzea.

2. Oinarri hauetan eskainitako kategorian sektore publikoan enplegua egonkortzeko prozesu bereziari buruzko berariazko arauak

- 2.1 Ebaluazio Epaimahaia.
- 2.2 Lanpostuak eta hautaketa-sistema.
- 2.3 Lanpostuaren profila.
 - 2.3.1 Lanpostuaren deskribapena eta funtzio/zeregin orokorrak.
 - 2.3.2 Euskararen hizkuntza-eskakizuna.
- 2.4 Berariazko eskakizunak.
- 2.5 Egin beharreko probak.
- 2.6 Merezimenduen balorazioa.
 - 2.6.1 Merezimendu profesionalak.
 - 2.6.2 Merezimendu akademikoak.
- 2.7 Lanpostuak esleitzeko prozesua: azken kalifikazioak, berdinketa hausteko irizpideak eta azken esleipena.
- 2.8 Lan-poltsa.

3. Eranskinak

- I. Eranskina. Proba teorikoaren gai-zerrenda.
- II. Eranskina. Arlo funtzionalak.

HITZAURREA

20/2021 Legeak, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoak, sektore publikoan aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bat aurreikusi du, 2022. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen 20. artikuluan jasotako ohiko berritze-tasaren osagarri dena.

Hala, 20/2021 Legearen zortzigarren xedapen gehigarriak berariaz adierazten du egonkortze-prozesuei buruzko arau honetan jasotako aginduak sozietate merkantil publikoei, enpresa-erakunde publikoei, sektore publikoko fundazioei eta sektore publikoko partzuergoei aplikatuko zaizkiela, nahiz eta, hala badagokio, haien araudi berezira egokitu.

Beraz, oinarri hauen xedea EITB Taldean enplegua egonkortzeko prozesurako arauak ezartzea da, lege hori betetzeko, kontuan hartuta EITB Media S.A.Uri, sektore publikoko erakunde den aldetik, *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko* lehenengo xedapen gehigarrian berariaz adierazitako artikulua bakarrik aplikatu behar zaizkiola, berariazko araudiaz gainera.

Beraz, EITB Media S.A.U Zuzenbide Pribatuak arautzen duen sozietate publikoa denez, ondoren garatuko diren bi hautaketa-sistemak ez dira ez oposizio-lehiaketa, ez lehiaketa izango, eta ez dute haien araubide juridikoa izango. Enplegu-deialdi honen ondoriozko lanpostu finkoak eta aldi baterako lan-kontratuak laboralak izango dira, eta lan-zuzenbide erkidea eta EITB Taldearen hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaizkie, aplikatzekoak diren arau eta printzipio orokorreki kalterik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, EITB Taldearen egonkortze-prozesuetan erabiliko diren hautapen-sistemei dagozkien izendapenak **egonkortze-prozesu berezia** izango da oposizio-lehiaketaren sistemarako, eta **aparteko egonkortze-prozesua**, lehiaketaren sistemarako.

SARRERA OROKORRA

20/2021 Legea betetzeko, egonkortze-prozesuek antolatzen dituzten lan-eskaintzak 2022ko ekainaren 1a baino lehen onartu eta argitaratu behar ziren. Enplegu publikoaren eskaintzetako lanpostuak betetzeko hautapen-prozesuen deialdiak 2022ko abenduaren 31 baino lehen argitaratu beharko dira. Era berean, deialdi horien ebazpenak 2024ko abenduaren 31 baino lehen bukatu beharko du.

Hala, 2022ko maiatzaren 23an, EITBko Administrazio Kontseiluak egonkortu beharreko lanpostuak onartu zituen, prozesu-tipologiaren arabera sailkatuta, eta EITBren webgunean argitaratu ziren 2022ko maiatzaren 25ean.

Geroago, 2022/07/15ean, Zuzendaritzak eta Enpresa Batzordeak Eusko Irratiaren negozio-unitatean akordioak egin zituzten, sektore publikoan aldi baterako langileak finkatzeko jurisprudentzia-doktrinari buruz.

Beraz, eta Eusko Irratiaren Hitzarmen Kolektiboan jasotako barne-fasea gauzatu ondoren, hau da egonkortuko diren lanpostuen kopurua, prozesu-motaren arabera sailkatuta:

EI	EGONKORTZE PROZESUA								
	APARTEKOA				BEREZIA / ARRUNTA				
	(Merezimenduak)				(Oposizio-lehiaketa)				
LANTOKIA	BIO	MIR	GAS	MAD	BIO	MIR	GAS	MAD	
ADMINISTRARIA			1						
MUSIKA-ANIMATZAILEA		11				3			
ERREDEKTORE-LOKUTOREA	19	2	5		10	1	6		
ERREDEKTORE-LOKUTOREA (KORRESPONTSALIA)				1				2	
SOINU ETA KONTROL TEKNIKARIA	1	1	2						
MANTENTZE-LANEN TEKNIKARIA			1			1			
GUZTIRA	20	14	9	1	10	5	6	2	
	44				23				67

Hautapen-prozesuaren antolaketak lehia askearen, berdintasunaren, merezimenduaren, gaitasunaren eta publizitatearen printzipioak betetzen direla bermatu beharko du.

20/2021 Legean ezartzen den bezala, bi prozesu-mota daude: enplegua egonkortzeko prozesu bereziak eta enplegua egonkortzeko aparteko prozesuak. Prozesu horiek kategoría bakoitzerako deituko dira, baldin eta horretarako legeko baldintzak betetzen dituzten lanpostu hutsak badaude:

- *Enplegua egonkortzeko prozesu berezia* merezimenduak frogatzeko eta baloratzeko sistemaren arabera antolatuko da (20/2021 Legearen 2. artikulua).

Prozesu bakoitzean bi modalitate izango dira: sarbide orokorreko modalitatea eta desgaitasunen bat duten pertsonen erreserbatutako sarbidea.

Era berean, eta Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzak 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak abian jartzeko orientazioei buruz emandako ebazpenaren 1.8 puntuarekin bat etorriz, giza baliabideen, baliabide materialen eta ekonomikoen kudeaketan eraginkortasun handiagoa lortzeko, prozesu horretan metatu dira lanbide-kategoría bereko langileak ordezkatzeko ohiko hautapen-prozesuak.

- *Administrazio publikoetan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrien babesean enplegua egonkortzeko aparteko prozesua* merezimenduak baloratzeko sistemaren bidez gauzatuko da.

Hautapen-prozesu bakoitzaren berezitasunak oinarri bakoitzeko berariazko arauen atalean arautuko dira, eta, gutxienez, honako alderdi hauek jasoko dituzte:

- Deialdiaren lanpostu-kopurua, prozesua eta haiek gauzatzeko sistema.
- Lanpostuaren deskribapena, hizkuntza-eskakizuna eta funtzio orokorrak.
- Sartzeko betekizunak.
- Egin behar diren probak (egonkortzeko prozesu berezietan eta prozesu arruntetan soilik).
- Merezimenduen balorazioa.

- Lanpostuak esleitzeko prozesua: azken kalifikazioak, berdinketa hausteko irizpideak eta esleipena.
- Gai-zerrenda (egonkortzeko prozesu berezietan eta prozesu arruntetan soilik).

1. PROZESU GUZTIETARAKO ARAU OROKORRAK

1.1. EBALUAZIO-EPAIMAHAIA

Langile finkoak herri-erakundeko eta haren mendeko sozietateko lantaldean sartzeko arauen arabera, prozesu bakoitzaren probak jarraitzeaz eta epaitzeaz Ebaluazio Epaimahaia arduratuko da. Epaimahai hori Enpresa Zuzendaritzako ordezkariak, langileen ordezkariak eta EITB Herri Erakundearen Administrazio Kontseiluak izendatutako kanpoko pertsona independenteek osatuko dute.

Ebaluazio Epaimahaiari dagokio hautapen-prozesua kudeatu, administratu eta ebaztea, herri-erakundeari eta haren mendeko sozietateari aplikatu beharreko barne-arauen arabera, baita hautapen-prozesua behar bezala kudeatzeko behar diren neurri guztiak hartzea ere.

Ebaluazio Epaimahaiak pertsona fisiko eta/edo juridiko espezializatuak agindu ahal izango dituen probak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzeko.

1.2. ARGITARATZEA: DEIALDIAK ARGITARATZEA, ERREKLAMAZIO-PROZESUARI ETA - PROZEDURARI BURUZKO ARGITALPENAK

Langile finkoak EITB Taldearen lantaldean sartzeko arauen arabera, hautapen-prozesu bakoitzaren deialdia eta egutegia EITBren webgunean argitaratuko dira: <https://www.eitbtaldea.eus/enplegu-publikoa.php>. Bitarteko horren bidez kudeatuko dira prozesuaren garapenari buruzko argitalpen eta jakinarazpen guztiak ere.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu eta gehienek ere **30 egun naturaleko** epean, prozesu bakoitzean onartu eta baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko da. Baztertzeko arrazoia ere adieraziko da zerrenda horretan, hala badagokio, baita zer prozesutan izan den baztertua ere.

Zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, **3 egun** naturaleko epea emango da erreklamazioak aurkezteko eta eskabideek izan ditzaketen akatsak zuzentzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatutakoan eta erreklamazioak ebatzi ondoren, prozesu bakoitzean onartu eta baztertu diren pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

1.3. IZENA EMATEKO PROZEDURA

Parte hartu nahi dutenek eskabide bat aurkeztu beharko dute hautapen-prozesu bakoitzeko, kategoria berekoak izan arren. Hautapen-prozesuetan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, beharrezkoa izango da:

- Hautagaitza behar bezala inskribatzea EUSKAL IRRATI TELEBISTA herri-erakundearen webgune korporatiboan (<https://www.eitbtaldea.eus/enplegu-publikoa.php>), oinarrietan deskribatutako baldintzen arabera.
- Izena emateko inprimakiari eranstea deialdiko baldintzak betetzeko eskatzen diren agiriak, PDF formatuan.

<https://www.eitbtaldea.eus/enplegu-publikoa.php> webgunean argitaratuko da oinarri hauetako 2.6 atalean zehaztutako merezimendu profesional eta akademiko puntuagarriak aurkezteko epea.

Ebaluazio Epaimahaiak eskubidea izango du izangaiek aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko, dagozkion legezko ondorio guztiekin.

Beste edozein bidetatik jasotako eskabideak ez dira onartuko. Halaber, baztertu egingo dira oinarrietan eskatzen diren betekizunak betetzen ez dituzten hautagaitzak.

Eskaerak aurkezteko epea **2023ko urtarrilaren 17an** hasiko da eta **2023ko urtarrilaren 31an amaituko da**, bi egun horiek barne.

Eskabidea aurkezteak esan nahi du izangaiek enplegu-deialdi honen oinarriak onartzen dituela.

Eskabideko atal hauek bete beharko dira:

- a) Datu pertsonalak: izen-abizenak, NANA eta jaiotza-data.
- b) Harremanetarako datuak: telefono mugikorraren zenbakia eta helbide elektronikoa.
- c) Parte hartu nahi den hautapen-prozesua:
 - Egonkortze-prozesu berezia eta prozesu arrunta, sarbide orokorreko modalitatean.
 - Egonkortze-prozesu berezia eta prozesu arrunta, desgaitasun-ziurtagiria duten pertsonentzako sarbide-modalitatean. Aukera hori berariaz adierazten ez bada, sarbide orokorreko modalitatea aukeratzen dela ulertuko da.
 - Aparteko egonkortze-prozesua, sarbide orokorreko modalitatean.
- d) Titulazio akademikoa.
- e) Hizkuntza-eskakizun egiaztatua.
- f) Aurkeztutako merezimenduak ziurtatzen dituzten agiriak.
- g) Desgaitasun-ziurtagiria, desgaitasunen bat duten pertsonentzako erreserbatutako txandara aurkezten diren pertsonen kasuan. Adimen-desgaitasunen bat duten pertsonentzako erreserbatutako lanpostuetara aurkeztuz gero, desgaitasun-maila eta -mota adierazi behar dira.

1.4. PROZESU GUZTIETARAKO ARAU OROKORRAK

Hautapen-prozesuetan onartuak izateko eskakizun orokorrak hauek dira:

a) Europar Batasuneko Estatu kideetakoren bateko herritartasuna izatea.

Europar Batasuneko estatuetakoko pertsonen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, haien herritartasuna dena dela, baldin eta zuzenbidezko banaketarik ez badago, bai eta haien ondorengoek eta ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta zuzenbidezko banaketarik ez badago, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo adin horretatik gorakoak izan arren dependentzia badute.

Halaber, parte hartu ahal izango dute Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsi dituen Nazioarteko Itunen aplikazio-eremuan sartzen diren pertsonen ere, langileen joan-etorri askea aplikatzeko itunak badira.

b) Lehiatzen den lanpostuari dagozkion zereginak egitea eragozten edo zailtzen duen gaixotasunik edo eragozpen fisikorik ez izatea; hala ere, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Dekretua aplikatuko da.

c) 16 urte beteak izatea eta nahitaezko erretirorako adina ez izatea.

d) Eskatutako titulazioa izatea edo hura eskuratzeko eskubideak ordainduak izatea. Berariazko arauen atalean adieraziko da titulazio hori. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da. Titulua Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialez bestelako hizkuntza batean badago, itzuli eta konpultsatu egin beharko da.

e) Desgaitasun edo bateraezintasuneko legezko arrazoirik ez izatea, indarrean dagoen araudiaren arabera, eta hark ematen dion aukera-eskubidea salbu uztea.

f) Berariazko oinarrietan eskatzen den beste edozein betekizun.

Lanpostuak lortu nahi dituztenek baldintza horiek bete beharko dituzte prozesuen deialdia argitaratzen den egunean, eta betetzen jarraitu beharko dute lanpostua esleitu eta kontratua sinatu arte.

1.5. LANPOSTU FINKOAK ESLEITZEKO ARAU KOMUNAK

Ebaluazio Epaimahaiak ezin izango du langile finko izateko proposatu deialdian jasotako lanpostu-kopurua baino jende gehiago, kasu hauetan izan ezik:

- Hautatu diren pertsonen uko egin izana, lanpostua esleitu edo kontratua sinatu aurretik.
- Aurkeztutako dokumentaziotik ondorioztatzen bada oinarrietan eskatutako betekizunen bat ez dutela betetzen edo lanak egiteko behar den gaitasun fisiko edo psikikoa ez dutela.

Kasu horretan, Ebaluazio Epaimahaiak dagokien izangaien aldeko esleipen-proposamen osagarria egingo du, hautapen-prozesua gaingitu duten pertsonen behin betiko zerrendako

puntuazio-ordenaren arabera, eta egoera hori dela-eta hutsik geratu den lanpostu adina izangai hautatuko ditu.

1.6. DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONENTZAKO ENPLEGU-ERRESERBA

Desgaitasunen bat duten pertsonen alde enplegua gordetzeko printzipio gidariak eta *desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren 42.1. artikuluan* xedatutakoa betetze aldera, desgaitasunen bat duten pertsonen bete beharreko kupo bat gordeko da lan-poltsarako probetan, gaia arautzen duen araudian ezarritako baldintzetan.

Desgaitasunen bat duten pertsonentzat gordetako lanpostuetara aurkezten direnek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izan beharko dute aitortua Foru Aldundietako organo eskudunen, IMSERSOren edo baliokideen aldetik, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Lehenengo xedapen gehigarriarekin bat etorritik, *Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 59. artikuluan*, desgaitasunen bat duten pertsonen buruzkoan, ezarri da enplegu publikoaren eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupo gordeko dela gutxienez desgaitasunen bat duten pertsonen bete dezaten.

Gutxienez lanpostuen ehuneko zazpi gordetze horretan, eskaintako lanpostuen ehuneko bi, gutxienez, adimen-desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonen betetzeko gordeko da, eta eskaintako gainerako lanpostuak, berriz, aitortutako beste edozein desgaitasun egiaztatzen duten pertsonen betetzeko.

Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren Ebazpena, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak abian jartzeko orientazioei buruzkoa, aplikatuz, desgaitasunen bat duten pertsonentzako lanpostuak egonkortze-prozesu berezietan eta horiei metatutako prozesu arruntetan erreserbatuko dira.

Hala, EITB Taldean, desgaitasunen bat duten pertsonentzako lanpostuak kategoria hauetan eskaintzen dira:

- Erredaktore-esataria: 2
- Albistegietako erredaktorea: 1
- Errealizazio-laguntzailea: 1
- Produkzio-laguntzailea: 1

Desgaitasunen bat duten pertsonak sartzeko txandan lanpostu horietakoren bat betetzen ez bada, sarbide orokorrari gehituko zaio.

1.7. HAUTAPEN-PROZESUKO DATUAK BABESTEA ETA KUDEATZEA

Euskal Irrati Telebista – Radio Televisión Vasca (EITB) (IFK: Q-0191001G; helbidea: Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo, Bizkaia) da hautapen-prozesuan parte hartuko duten pertsonen eskatutako eta prozesu horretan sortutako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna.

Hautapen-prozesuen ondorioz eskatutako edota sortutako datu pertsonalak EITBk tratatzen ditu, hautapen-prozesua gainditu eta lanposturik lortzen ez duten pertsonekin lanpostuak betetzeko eta lan-poltsa osatzeko izangaiak aukeratzeko prozesua kudeatzeko.

Datu pertsonalak tratatzeko legitimazioa edo legezko oinarria ahalmen publikoa erabiltzea eta legezko betebeharra betetzea da, *Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren* 6.1.e) eta 6.1.c) artikuluen arabera.

Datuak legezko betebeharrak betetzeko soilik jakinaraziko zaizkie hirugarrenei. Halaber, izangaien eta hautatuen datuak zenbakizko kode baten bidez argitaratuko dira EITBren webgunean.

Datu pertsonalak ez dira nazioarteko transferentzien xede izango.

Hautapen-prozesua osatzeko behar den denboran mantenduko dira datu pertsonalak, izan daitezkeen baliabideak barne, eta, ondoren, hautapen-prozesua gainditu eta lanposturik lortu ez duten pertsonekin lan-poltsa osatzeko. Datu horiek blokeatu egingo dira sor daitezkeen erantzukizunak betetzeko, baita ekintzak gauzatzeko preskripzio-aldian datu pertsonalak kudeatzetik etorritako erantzukizunak betetzeko, eta, hala badagokio, fitxategien eta agirien araudian ezarritako aldietan sortutakoak betetzeko ere.

Pertsonak eskubidea du EITBk bere datu pertsonalak tratatzen dituen jakiteko. Hala, interesdunek eskubidea dute euren datu pertsonalak eskuratzeko, datu okerrak zuzentzeko edo, hala badagokio, ezabatze eskatzeko, besteak beste, datuak bildu ziren helburuetarako beharrezkoak ez direnean.

Egoera jakin batzuetan, interesdunek euren datuen tratamendua mugatzeko eska dezakete. Kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo defendatzeko bakarrik gordeko dira, eta, euren egoera partikularrarekin zerikusia duten arrazoiengatik, interesdunek aurka egin ahal izango diote euren datuak tratatzeari. Erakundeak datuak tratatzeari utziko dio, ezinbesteko arrazoi legitimoetarako edo erreklamazioak egiteko edo defendatzeko izan ezik.

Era berean, interesdunek datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango dute, eman dituzten datuak erabilera arrunterako eta irakurketa mekanikoko formatu egituratuan lortzeko, euren kabuz deskargatu edo beste erakunde batera transmititu ahal izateko.

Interesdunak, eskubide horiek erabiltzeko, mezu elektronikoko bat bidal dezake helbide honetara: dbo-dpd@eitb.eus

Eskubideak erabiltzean gogobetetasunik lortu ez badu, erreklamazio bat aurkez dezake Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, haren webgunean adierazitako posta-helbidera edo helbide elektronikora idatzita.

Datu pertsonalak ezarritako segurtasun-neurrien arabera tratatuko dira (teknikoak eta antolaketa-koak), eta bat etorriko dira *Segurtasunerako Eskema Nazionala* arautzen duen urtarilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuan aurreikusitakoekin.

2. OINARRI HAUETAN ESKAINITAKO KATEGORIAN SEKTORE PUBLIKOAN ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESU BEREZIARI BURUZKO BERARIAZKO ARAUAK

2.1. EBALUAZIO-EPAIMAHAIA

Langile finkoak herri-erakundeko eta haren sozietateetako lantaldean sartzeko arauen arabera, Eusko Irratiko lanpostuak betetzeko, honako hauek osatuko dute Ebaluazio Epaimahaia:

- a) Giza Baliabideen Zuzendaritza, Zuzendaritza Nagusiaren ordezkari gisa; presidente izango da, eta kargu hori Giza Baliabideen Saileko beste pertsona baten esku utzi ahal izango du.
- b) Giza Baliabideen Saileko kide bat.
- c) Zuzendaritzako kide bat edo bete behar den lanpostuaren arloko arduraduna.
- d) Eusko Irratiko zuzendaritzetako bateko kide bat.
- e) Administrazio Kontseiluak izendatutako bi kide.
- f) Bete beharreko lanpostuaren arloan edo sailean diharduen Eusko Irratiko langile finko bat, Langile Batzordeak izendatua.

2.2. LANPOSTUAK ETA SISTEMA

Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea eta Funtzio Publikoaren Estatuko Idazkaritzaren Ebazpena, 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze-prozesuak abian jartzeko orientazioei buruzkoa, betez, eta martxoaren 27ko 8/1998 Legean, "Radio Televisión Vasca - EITB" herri-erakundea sortzeko 5/1982 Legea aldatzen duenean, ezarritako merezimendu- eta gaitasun-printzipioei jarraituz, lan-eskaintza publikoko deialdi bat abiarazi da, Eusko Irratia negozio-unitatean 3 lanpostu finko esleitzeko "Musika Animatzailea" kategorian, Oinarri hauetan deskribatutako baldintzen arabera. Proba horiek berak kategorია horretako lan-poltsa eratzeko erabiliko dira.

Hala, "Musika Animatzailea" izateko 3 lanpostu betetzeko deialdia egin da Miramoneko lantokian.

Hautapen-sistema probak egitean eta merezimenduak baloratzean datza.

Bi modalitate izango dira: sarbide orokorrekoa eta desgaitasunen bat duten pertsonen erreserbatutako sarbidea. Kasu honetan, prozesu honetan, hauek dira desgaitasunen bat duten pertsonentzat erreserbatutako lanpostuak: 0 lanpostu.

LANPOSTUAREN PROFILA

2.3.1 Lanpostuaren deskribapena eta funtzio/zeregin orokorrak

Profesional honek musika ezagutza asko eta kalitatezko ahotsa ditu, eta norbere ekimen osoz eta erantzukizunarekin komunikabide barnean eta kanpoan musika programak aurkeztu eta animazio inprobisatuak egiten ditu, eta bera da errealizazioaren eta autokontrolaren arduraduna.

Publizitate testuak grabatzeko agindua eman ahalko zaio, ezin hobeto bukatzeko beharrezkoa den soinu materiala aukeratzea barne.

Gainera, beste pertsona bati zuzenduta dauden eta zorrozki musikalak ez diren bestelako entretenimendu programen animazio inprobisatuaz edo inprobisatu gabeaz arduratuko da.

Aurreko zereginen lotutako ekoizpen- eta edizio-lanak egingo ditu.

Lan egiteko beharrezkoak diren ordenagailuko terminalak eta periferikoak zein maiztasun txikiko ekipamenduak erabiltzen eta maneiatzen jakin behar du, eta dakiena aplikatu. Bestalde, zereginetarako behar dituen teknikarien koordinazioaz arduratu ahal izango da.

2.3.2 Euskararen hizkuntza-eskakizuna

C1

Euskararen hizkuntza-eskakizuna ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatuko da.

Egiaztapen ofizial hori ez duten hautagaitzek euskara-mailaren egiaztapen-proba ofizialen mailako proba egin beharko dute, jakiteko ea betetzen duten lanposturako hizkuntza-eskakizuna. Proba hori oinarri hauetan eskainitako plazak adjudikatu aurretik egingo da, eta inolaz ere ez da ofiziala izango. Gai edo ez gai moduan kalifikatuko da eta baztertzaila izango da. Ez dute proba egin beharko oinarri hauetan eskatzen den maila bereko euskararen proba gainditu dutenek EITB Taldeak antolatutako enplegu publikoko deialdi batean edo lan poltsarako deialdi batean.

2.3. BERARIAZKO BETEKIZUNAK

Hautagaitzek titulazio hauetakoren bat izan beharko dute:

- Bideo, Disc Jockey eta Bideo teknikaria
- Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioko Gradua
- Unibertsitateko Kazetaritza Gradua
- Antzeko titulu baliokide homologatua

Sarbide-titulazio hauek dituzten hautagaitzak ere onartuko dira:

- Unibertsitateko Publizitateko eta Harreman Publikoetako Gradua
- Goi Mailako teknikaria Irudian eta Soinuan
- Batxiler-titulua

2.4. EGIN BEHAR DIREN PROBAK

Lanpostuak betetzeko probak Ebaluazio Epaimahaiak zehaztu eta epaituko ditu, eta nahitaezkoak izango dira.

Ebaluazio Epaimahaiak pertsona fisiko eta/edo juridiko espezializatuei eskatu ahal izango die probak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzea.

Azterketa teoriko-praktiko bat izango da, erantzun anitzeko galderekin:

- Atal teorikoan I. eranskinean zehaztutako gaiei buruzko ezagutzak ebaluatuko dira.
- Atal praktikoan, lanpostuaren deskribapenari eta oinarri hauetan deskribatutako funtzio orokorre/zereginei buruzko ezagutza espezifikoa ebaluatuko dira.

Probak Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan egin ahal izango dira, eta izangaiak hizkuntza batean edo bestean egin nahi duen aukeratu ahal izango du azterketa egiten duenean.

Atal horretan 60 puntu emango dira, gehienez ere: 10 puntu atal teorikoan, eta 50 puntu atal praktikoan. Proba osorik gainditutzat emango zaie proba teorikoaren eta atal praktikoaren artean gutxienez 30 puntu lortu dituzten izangaiak.

Probak egiteari buruzko informazioa (datak, kokapena, ordutegiak, etab.) garaiz eta behar bezala jakinaraziko da EITBren webgune korporatiboan: <https://www.eitbtaldea.eus/enplegu-publicoa.php>.

2.5. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA

2.5.1. Merezimendu profesionalak

Izangaiak behar bezala egiaztatutako esperientzia baloratuko da, gehienez **36** punturekin.

Merezimenduak eman beharreko esperientzia:

- a) Oinarri hauetan azaldutako eginkizunak bete izana Eusko Irratian, erregimen arrunteko lan-kontratuarekin. **2,40** puntu, lan egindako urte bakoitzeko (gehienez **36** puntu).
- b) Arlo funtzional berean beste eginkizun batzuk bete izana Eusko Irratian, erregimen arrunteko lan-kontratuarekin. **1,80** puntu, lan egindako urte bakoitzeko (gehienez **27** puntu).

Kasu horretan puntuazioa lortu ahal izateko, beharrezkoa izango da gutxienez 6 hilabeteko aldia zenbatzea a) kasuan. Era berean, kasu horretan lortutako puntuazioa ezingo da inolaz ere a) kasuan lortutakoa baino handiagoa izan.

Oinarri hauetako I. eranskinean zehazten da atal honetan zenbatu ahal izateko kategoria bakoitzaren arlo funtzionala.

- c) Oinarri hauetan azaldutako eginkizunak bete izana, EITB Media S.A.Urentzat edozein motatako informazio-zerbitzuak edota entretenimendu-programak sortzen dituzten entitateek sinatutako kontratuari atxikita. **0,80** puntu, lan egindako urte bakoitzeko (gehienez **12** puntu).

Kasu honetan, esperientzia honela lortu ahal izango da:

- EITB Media S.A.Uk kontratatutako erakunde batekin lan-harreman arrunta izatea, besteren kontura edo norberaren kontura.
- Norberaren konturako harremana (langile autonomo gisa).

Zenbaketa egiteko, azken 15 urteetan lan egindako aldiak batuko dira. Kontratatutako urte bakoitzeko 360 eguneko zenbatekoa ulertuko da. Urtebetetik beherako aldietan, proportzioan hainbanatuko da.

Izangai bakoitzak egiaztaturiko aldi bakoitza arestian aipatutako kasuetako batean bakarrik baloratuko da, eta ezin izango da aldi bera merezimenduetako kasu batean baino gehiagotan zenbatu.

Izangaiaren lanbide-esperientziaren balorazioan, deialdia argitaratzen den egunera arte zenbatuko da, egun hori barne. Hortaz, ez da kontuan hartuko egun horren ondoren eskuratutako lanbide-esperientzia.

Izangai bakoitzak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du, oinarri hauetako profil eta funtzioetan egindako aldiak jasoko dituen egunetan zenbatuta, eta zerbitzuak egin dituen entitateak behar bezala sinatu eta zigilatu behar du ziurtagiri hori. Horrez gainera, c) kasuan, izangaiak agiri bidez ziurtatu beharko du zerbitzuak ematen dituen erakundearen eta EITB Media S.A.Uaren artean sinatutako kontratuari atxikita dagoela; eta norberaren konturako harremanen kasuan, EITB Media S.A.Urako zerbitzuak eman direla modu berean egiaztatu beharko da.

Ziurtagirian aitortzen diren aldi guztiak Gizarte Segurantzak emandako lan-ibilbideari buruzko txosten bat erantsiz egiaztatu behar dira, eta arestian adierazitako moduan zenbatuko dira, deialdia argitaratzen den egunera arte, hura barne, hau da, aitortutako aldiak bakarrik, lan-ibilbideari buruzko ziurtagiriarekin bat datozenak, bai datetan, bai kontratatutako egunetan.

Ez da merezimendutzat hartuko enpresan prestakuntza-bekak edo prestakuntza-aldiak egin izana, hau da, enpresa batean lan-harremanik ezarri ez den ikaskuntza-aldiak bete izana.

Aurkeztutako dokumentazioa egiaztatzeko, Ebaluazio Epaimahaiak izangaiari eskatu ahal izango dio aurkeztutako dokumentazioa osatzeko edo zuzentzeko, egoki iritzi gero.

Ebaluazio Epaimahaiak behar diren erabakiak hartuko ditu jasotako eskabideen merezimenduen zenbaketa ebazteko, betiere berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak errespetatuz.

2.5.2. Merezimendu akademikoak

Merezimendu akademikoen atalak gehienez ere 4 puntu izango ditu eta merezimendu hauetan banatuta egongo da:

1. blokea – HIZKUNTZAK.

Hizkuntzen ezagutza baloratuko da merezimendu akademikoen puntuazioari dagokion % 60era arte gehienez ere, hau da, 2,4 puntu, eta beharrezkoa izango da adierazitako mailaren egiaztagiri ofiziala atxikitzea. Hizkuntza beraren hainbat maila egiaztatzen badira, bakarrik maila gorenekoa baloratuko da baremazio honekin bat etorritz:

- Euskara:
 - C1 titulu ofiziala – 0,6 puntu
 - C2 titulu ofiziala – 1,2 puntu
- Ingelesa:
 - B2 titulu ofiziala – 0,4 puntu
 - C1 titulu ofiziala edo maila altuagoa – 0,6 puntu
- Frantsesa:
 - B2 titulu ofiziala – 0,4 puntu
 - C1 titulu ofiziala edo maila altuagoa – 0,6 puntu

2. blokea – PRESTAKUNTZA

Prestakuntza baloratuko da gehienez ere 1,6 puntura arte, hau da, merezimendu akademikoei esleitutako puntuazioaren % 40. Atal honetan kontuan hartuko dira prestakuntza arautuko titulazioak, arautu gabeko prestakuntzak edo ikastaroak, eta bestelako prestakuntzak.

Guztiekin batera egiaztapen ofiziala aurkeztu beharko da, eta ordu kopurua eta zein egunetan egin ziren azaldu beharko da.

Baremo hauekin bat etorritz puntuatuko dira:

- Musika prestakuntza: Atal honetan musika prestakuntza arautua eta arautu gabea baloratuko da gehienez ere % 5ean, hau da, 0,2 puntu.
- Kategoriarekin zerikusia duen prestakuntza arautu gabea: Atal honetan ezagutzak edo egindako ikastaroak baloratuko dira gehienez ere 0,2 punturekin eta baremo hauen arabera:
 - 7 ordu baino gehiagoko ikastaroak: 0,2 puntu.

- Gaitasunak garatzea*: atal honetan garatutako gaitasunen ikaskuntza baloratzen da baremo hauen arabera:
 - Gaitasuna entretenimenduko programetan: 0,6 puntu.
 - Gaitasuna programak gidatzen: 0,6 puntu.

*Gaitasunen garapena egiaztatzeko enpresa ziurtagiria aurkeztu beharko da eta programa, enpresa eta hasiera eta bukaera epeak adierazi beharko dira.

2.6. LANPOSTUAK ESLEITZEKO PROZESUA: AZKEN KALIFIKAZIOAK, BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK ETA AZKEN ESLEIPENA

Egin beharreko probak amaitu eta aurkeztutako merezimenduak aztertu ondoren, izangai bakoitzak lortutako guztizko puntuazioa zenbatuko du Ebaluazio Epaimahaiak. Guztira **100** puntu emango dira gehienez, honela: proba teorikoan lortutako puntuak (**gehienez 10 puntu**) + proba praktikoan lortutako puntuak (**gehienez 50 puntu**) + merezimenduen balorazioan lortutako puntuak (**gehienez 40 puntu**). Prozesua gainditzeko, gutxienez **30** puntu lortu beharko dira proba teorikoaren eta praktikoaren artean.

Hala, lanpostuak beheranzko ordenan esleituko dira, proba guztietarako behin betiko emaitzen arabera. Era berean, EITBk ezarritako egutegiaren arabera hasiko dira lanean lanpostuan.

Gustizko puntuazioan berdinketarik izanez gero, berdinduta dauden pertsonen arteko lehentasun-ordena irizpide hauei jarraituz ezarriko da, hurrenez hurren:

- a) kasuan esperientzia baloragarriak handiena duenaren alde.
- b) kasuan esperientzia baloragarriak handiena duenaren alde.
- Merezimendu profesionalak baloratzeko fasean puntu gehien lortu dituenaren alde.
- Merezimendu akademikoak baloratzean puntu gehien lortu dituenaren alde.

Hizkuntza-eskakizunari dagokionez, izangaiak oinarri hauetan lanpostua esleitzeko edo lan-poltsan sartzeko ezarritako euskara-maila egiaztatu beharko du, titulu ofiziala aurkeztuta edo egin beharreko proben atalean proba eginda.

Horrenbestez, euskara-maila egiaztatzen duten izangaiek lanpostua haiei esleitzeko aukera izango dute edo lan-poltsara sartuko dira, betiere prozesuaren gainerako atalak gainditzen badituzte.

Euskara-maila egiaztatu ez duten hautagaiak (ez tituluaren egiaztasun ofizialaren bidez, ez proba gaindituz) puntu batzuk lortuko dituzte azken kalifikazioan, baina ez dute lanpostua haiei esleitzeko aukerarik izango.

Gainera, aipatutako bi bide horietako batean ere euskara-maila egiaztatu ez duten hautagaiak ez dira lan-poltsan sartuko, eta, beraz, ez zaizkie eskainiko sor daitezkeen kontratuak, harik eta egiaztasun ofizial baten bidez eskatutako euskara-maila egiaztatzen duten arte.

Prozesu hau amaitu ondoren, izangaiek titulu ofiziala aurkeztuz egiaztatu ahal izango dute Europako Erreferentzia Markoko euskara-maila, titulua lortzen dutenean aurkeztuz, eta une horretan automatikoki aktibatuko dira lan-poltsan.

Bestalde, *langile finkoak herri-erakundeko eta haren sozietateetako lantaldean sartzeko arauen arabera*, sarbide orokorreko modalitatearen ondorioz prozesua gainditzen duten hautagaien kopurua handiagoa bada bete beharreko lanpostuena baino, prozesua gainditu arren lanpostua lortu ez duten pertsonen (betiere hizkuntza-eskakizuna egiaztatua badute) lehentasuna izango dute hasieran hautatutako pertsonen probaldia ez gainditzeagatik sor daitezkeen lanpostu hutsak betetzeko. Lehentasunezko eskubidea izango dute, halaber, parte hartu duten deialdiaren ebazpena eman eta hurrengo bi urteetan Zuzendaritzak kategoria berean betetzea erabakitzen duen lanpostuak betetzeko, beste lehiaketa bat egin beharrik izan gabe eta, betiere, jatorrizko deialdian barne-promozioko fasea agortu bada.

2.7. LAN-POLTSA

Enplegu Publikoaren deialdia amaitu ondoren, izangai bakoitzak lortutako emaitzak kontuan hartuta, oinarri hauetan adierazitako kategoriarako lan-poltsa osatuko da, eta, hortik aurrera, kategoria horretako aldi baterako kontratazioa egingo da.

Prozesua gainditzen duten baina lanposturik lortzen ez duten izangaiak automatikoki sartuko dira kategoria horretako lan-poltsa barematuan, goitik beherako hurrenkeran, lortutako behin betiko emaitzen arabera (betiere hizkuntza-eskakizuna ofizialki egiaztatua badute). Lan-poltsa hori aldi baterako kontratazio guztiak egiteko erabiliko da, modalitatea edozein dela ere.

Era berean, prozesu honetako zerrendak EITBren webgunean argitaratuko dira, eta lan-poltsa osatzen duten pertsonen ikusi ahal izango dituzte.

OHAR GARRANTZITSUAK

- Prozesu honi buruzko informazio guztia EITBren webgunean argitaratuko da: <https://www.eitbtaldeia.eus/enplegu-publikoa.php>
- Izangaiaren erantzukizuna da argitaratutako berrien jarraipena egitea (izena emateko datak, ziurtagiriak ematea, azterketarako deialdia, etab.).
- Prozesuari buruzko kontsultak helbide elektroniko honetara bidali behar dira: egonkortze@eitb.eus. Hori izango da komunikaziorako bide bakarra.

Gehien errepikatzen diren kontsultak eta garrantzitsuenak direnak webgunean gaitutako **“Ohiko galderak”** atalean argitaratuko dira.

3. ERASKINAK

I. ERASKINA. PROBA TEORIKOAREN GAI-ZERRENDAA

1. [5/1982 Legea, EITB sortze legea](#)
 2. [8/1998 Legea, EITB sortze legea aldatzen duena](#)
 3. [EITBko Administrazio Kontseiluaren Barne Araudia](#)
 4. [EITB MEDIA S.A.U sortzeko baimena ematen duen 92/2020 dekretua](#)
 5. [Ikus-entzunezko komunikazioari buruzko 7/2010 Lege Orokorra](#)
 6. [EITB 2030 estrategia](#)
 7. [Enpresa egitura](#)
 8. [III EITBren Berdintasun Plana 2019-2022](#)
 9. [Sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko EITBko protokoloa](#)
 10. [Kontratatzaillearen profila](#)
 11. [Pribatutasun politika](#)
 12. [EITBren Estilo Liburua](#)
-

EI

ERREDAKTORE-LOKUTOREA

- Erredaktorea Euskal Telebistan.

ERREDAKTORE-LOKUTOREA KORRESPONTSALIA ESTATALA

- Erredaktorea Euskal Telebistan.

MUSIKA ANIMATZAILEA

- Ez dagokio.

SOINU ETA KONTROL TEKNIKARIA

- Ez dagokio.

MANTENTZE-LANEN TEKNIKARIA

- Ez dagokio.

ADMINISTRARIA

- EITB Taldeko beste negozio-unitate batzuetan.
- Administrari laguntzailea.
- Administrari laguntzailea eta produkzioa.